



INBERTSIO POLITIKA



Konpainiak helburu informatiboekin soilik ematen du hurrengo euskarazko itzulpena, Konpainiaren webgunean eskuragarri dagoen jatorrizko dokumentu ofizialean oinarrituta. Euskarazko bertsioaren eta gaztelarazko dokumentuaren artean desadostasunik egonez gero, azken hori gailenduko da.

AURKIBIDEA

1.	TESTUINGURUA ETA HELBURUA.....	3
2.	XEDEA	3
3.	GURE KONPROMISOA	3
4.	IRISMENA.....	4
5.	INBERTSIOAREN ARLOKO OINARRIZKO PRINTZIPIOAK	5
6.	JARRAIPENA ETA KONTROLA	6
7.	BERRIKUSTEA ETA EGUNERATZEA.....	6
8.	ONARTZEA ETA ZABALTZEA	6



1. TESTUINGURUA ETA HELBURUA

CONSTRUCCIONES Y AUXILIAR DE FERROCARRILES, S.A.ren (aurrerantzean, “Sozietatea”) Administrazio Kontseiluak sozietatearen politika eta estrategia orokorrak, inbertsioari dagozkionak barne, zehazteko eskuordetza eskumena du. Era berean, Administrazio Kontseiluari dagokio arrisku berezia duten eragiketa edo inbertsioak onartzea, estrategikoki txertatuta daudelako, zenbatekoagatik edo ezaugarriengatik. Hori guztia, Kapital Sozietateei buruzko Legearen 249 bis eta 529 ter artikuluetan ezarritakoa betez.¹

CAF Taldeak (aurrerantzean, “CAF” edo “Taldea”) negozio-eredu bat du, eta, negozio-helburuak betetzeko, aktiboetan inbertitu behar du.

Inbertsio-jarduera hori areagotu ahal izango da hazkunde ordenatu eta errentagarria aurreikusten den egoera jakin batzuetan.

Inbertsio-premia estrukturalak eta koiunturalak aktiboen tipologia gero eta zabalagoan oinarritzen dira, eta gero eta sofistikazio-maila handiagoa dute.

Horregatik guztiagatik, dokumentu honen helburua da Taldearen inbertsioaren alorreko oinarritzko printzipioak eta jarduera-ildoak ezartzea, sektorean jarduten duten konpainientzat aurreikusitakoaren arabera, kapital publikoa eta kotizatua izanik eta nazioartean presentzia nabarmena izanik.

2. XEDEA

CAFen inbertsio-jardueraren xedea da inbertsio-aukera onenak identifikatzea eta funts mugatuen esleipen optimoa egitea, Taldearen eta haren negozio-unitateen estrategia modu ordenatuan gauzatzeko jarduten duen merkatu eta geografietan; negozioarentzat eta akziodunentzat balioa sortuz, eta nahi ez diren arriskuak saihestuz.

3. GURE KONPROMISOA

CAFen helburua da konfiantza eta balioa sortzea jarduera arduratsuaren bidez jarduten duen mugikortasuneko merkatu nazional eta nazioartekoetan. Horretarako, fede onaren, leialtasunaren eta gardentasunaren printzipioen arabera jarduten duten langile gaituak eta konprometituak ditu.

CAFen inbertsio-politika estrategia korporatiboaren ardatz nagusiarekin eta CAFen helburu orokorrekin bat etorritz definitzen da. Helburu horiek interes-taldeen (akziodunak, bezeroak, hornitzaileak, langileak eta gizartea) gogobetetzeari oinarritzen dira.

¹Kapital Sozietateei buruzko Legearen testuategina, uztailaren 2ko 1/2010 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartua, eta 2014ko abenduaren 3ko 31/2014 Legeak aldatua.

Inbertsio-arloan duen erantzukizunaren barruan, CAFek konpromisoa hartzen du akziodunentzat balioa sortzeko, indarrean dagoen estrategia betetzea ahalbidetuko duten aukerak hautatuz eta optimizatuz, arrisku-maila onargarri baten barruan.

CAFek Taldearen negozio-unitate guztietan inbertsio-politika horren printzipio gidariak ezagutzea sustatzen du, eta, hala, erakundearen barruan inbertsioen arloan jarduera sendoa egitea lortzen du.

4. IRISMENA

Inbertsio-politika honek CAF Taldea osatzen duten sozietate guztiak hartzen ditu, eta Sozietateak kontrol eraginkorra du haien gainean.

CAF Taldekoak ez diren partaidetzazko sozietateetan, Sozietateak ahalegina egingo du printzipioak, gidalerroak eta mugak bat etor daitezen Inbertsio Politika honen bitartez ezartzen direnekin.

Horrenbestez, Inbertsio Politika Taldeko negozio-unitate, gobernu- eta kontrol-organo eta langile guztiei zabalduko zaie, baldin eta, gaur egun indarrean dagoen Plan Estrategikoaren esparruan, aktiboetan esleitzeko funtsak erabiltzea dakarten inbertsio-proiektuak identifikatzen, aztertzen eta gauzatzen parte hartzen badute.

Inbertsio-politika funtsen ekarpenak behar dituzten eta aurrez zehaztutako denbora-epean itzulkina sortzen duten aktibo-mota guztiei aplikatuko zaie.

Inbertsio-politikaren xede diren aktiboak honela sailkatzen dira inbertsio-politikaren ondorioetarako:

- **Aktibo monetarioak: inbertsioak** diru-tresnetan, zor-tresnetan, equity-etan eta eratorrietan, zentzurik zabalenean, Konpainiari likidezia edo estaldura emateko, besteak beste.
- **Aktibo operatiboak: inbertsioak** jarduera ustiatzeko bitarteko operatiboetan, hala nola makinak edo garraio-elementuak, ibilgetutako materialean sailkatuta, edo inbertsioak kapital zirkulatzailean.
- **Aktibo higiezinak:** aktibo higiezinak beren tipologia osoan; ekoizpen-instalazioak, biltegiak eta zentro logistikoak edo bulegoak barne.
- **Kapital pribatuko aktiboak:** proiektuetatik, aliantzetatik, fusioetatik eta erosketetatik sortutako kapital pribatuko inbertsioak.
 - Egiturazko harremanak eta alderdietan inbertsioak dakartzaten kontratu-aliantzak.
 - PPP eta Project Finance.
 - Joint Ventures edo aldi baterako inbertsio bateratuak.
 - Seed eta Venture Capital edo inbertsioak enpresetan hasierako faseetan eta hazkundean.
 - Private Equity edo sektorean jada finkatuta dauden konpainietako inbertsioak.
- **Aktibo ukiezinak:** barne-garapenen edo eskuratze-prozesuen ondoriozko ukiezinetan egindako inbertsioak.

5. INBERTSIOAREN ARLOKO OINARRIZKO PRINTZPIOAK

Hauek dira CAF Taldearen inbertsio-alorreko jardueren-printzipioak:

- **Taldearen Estrategia (Estrategia) betetzen dela zaintzea:** edozein aktibo-motatan funtsak esleitzearen helburua da Taldean indarrean dagoen estrategia betetzea eta bere xede soziala gauzatzeko beharrezkoak diren eskumenak eta bitartekoak hornitzea, Konpainiaren epe ertaineko eta luzeko lehiakortasuna bermatuz jarduten duen merkatuetan.
- **Konpainiarentzat eta akziodunentzat balioa sortzea (itzulkina):** identifikatutako aukera onenetara bideratuko da inbertsioa, halako moldez non inbertsiorako itzulkina une bakoitzean indarrean dagoen Kudeaketa Planaren irizpideen arabera proiektu bakoitzaren ezaugarriak kontuan hartuta lerrokatuta edo eskatutakoaren gainetik egongo baita, eta balioa sortuko baitu negozioarentzat, bere helburuak betetzen parte hartuko duten interes-taldeentzat eta, bereziki, akziodunentzat.
- **Aurrekontu- eta ainguratze-murritzaketak betetzea (aurrekontu-muga eta tiketa):** CAFek aurrez zehaztutako funtsak ditu, eta inbertsioak finantzatzeko ahalmen mugatua; beraz, onartutako aurrekontua negozio-unitate eta aktibo bakoitzeko esleituko da, Taldearen helburuekin bat.
- **Zentzuzko heltze- eta itzulera-horizonte batean txandakatzea (aldi baterako horizontea):** inbertsio-aukerak egituratzeko, funtsen txandakatzea sustatuko da, fluxuen irteera- eta sarrera-horizonteak bat etor daitezen proiektu bakoitzaren interes estrategikoarekin, aktibo bakoitzaren izaerarekin eta aukera espezifikoaren ezaugarriekin.
- **Aurrez ezarritako arrisku-mugak betetzea (Arriskua):** inbertsio-jarduerak Arriskuak Kontrolatzeko eta Kudeatzeko Politika Orokorrean zehaztutako helburu eta murritzaketak beteko ditu, negozio-unitate bakoitzean aplikatzearen ondoriozkoak.
- **Behar bezala egituratzea eta finantza-tresna egokiak izatea (finantzaketa):** inbertsio-proiektuak aktibo-mota bakoitzerako tresna egokiekin finantzatuko dira, jarduerak sortutako funtsen, kanpo-finantzaketa berriaren eta kapital-ekarpen gehigarrien artean aukeratuta, Taldearen kapital-egitura optimizatuz.
- **Prozesu, irizpide eta baliabide homogeneo eta eguneratuen arabera exekutatzeko (Irizpidea, Prozesua eta Baliabideak):** aukerak aztertu, exekutatu, onartu eta gainbegiratu dira beren inbertsio-horizontean, prozesu operatibo komunen arabera, honako hauek kontuan hartuta:
 - Prozesu bat aktibo mota bakoitzeko.
 - Inbertsio-unean indarrean dagoen Kudeaketa Planean definitutako inbertsio- eta itzulera-irizpideak.
 - Eredu, iturri eta tresna korporatibo bateratu eta irisgarriak.

Aipatutako printzipio horiek guztiak CAFen printzipio orokorren arabera beteko dira, eta, bereziki, interes-talde guztien aurrean fede onez eta zintzotasunez jokatzeko printzipioen arabera.

6. JARRAIPENA ETA KONTROLA

Ikuskaritza Batzordeari dagokio, eta, azken batean, Administrazio Kontseiluari, ziurtatzea CAF Talde osoak betetzen duela politika hori. Horretarako, behar diren barne-kontrolerako mekanismoak ezarriko dira.

Testuinguru horretan, Sozietatearen Ekonomia eta Finantza Zuzendaritzak, Auditoretza Batzordeak eskatuta, ekitaldian aplikatutako inbertsio-irizpideei buruzko beharrezko informazioa emango du, eta, bereziki, Taldeak Inbertsio Politika zenbateraino betetzen duen adieraziko du. Informazio hori Auditoretza Batzordearen esku geratuko da, Kontseiluari igortzeko.

Era berean, Administrazio Kontseiluaren onespena behar duten eragiketen kasuan, Ekonomia eta Finantza Zuzendaritzak eragiketa horiek izan ditzaketen inplikazio eta arriskuen berri emango du, Auditoretza Batzordeak eta, azken batean, Administrazio Kontseiluak egoki balora ditzaten.

7. BERRIKUSTEA ETA EGUNERATZEA

Inbertsio-politika horrek irautea du xede; hala ere, Auditoretza Batzordeak aldizka berrikusi ahal izango du, hala badagokio, dagokion eguneratze-proposamena Administrazio Kontseiluari aurkezteko.

8. ONARTZEA ETA ZABALTZEA

Politika hau CAFeko Administrazio Kontseiluak onartzen du 2018ko abenduaren 18ko bileran, eta egun horretatik aurrera sartuko da indarrean.

Interesatuak eta hartzaileak errazago ezagut dezaten, inbertsio-politika hau Sozietatearen web-orrian (www.cafmobility.com) argitaratuko da, bai eta Taldearen atari korporatiboan ere.